

GURE IDEIA

Merkatura atera nahi dugun produktua eta aurrera eraman nahi dugun ideia zapatila berezi eta oso espezifikoko batzuk dira. Zapatila hauek lehenengo aldiz ikusita beste saskibaloia edo kiroltarako zapatila batzuk bezalakoak dirudite, baina, behin produktua analizatuta, nahiko ikusgarria da bere zolata. Zolata hau berezia da arrazoi batengatik, arrazoi hau zolatak eragiten duen bultzakada salto egiterakoan da. bultzakada ez da izugarria, baina nahikoa da aldaketaren bat sentitzeko salto egiterakoan.